

Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana

2023-2027



Laguntza teknikoa:

Daiteke Gizarte Aholkularitza

www.daiteke.eus



Diru-laguntza:

Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea



AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. ARAU ESPARRUA	4
3. PLANAREN INDARRALDIA.....	7
4. LAN PROZEDURA	8
5. HELBURU ESTRATEGIKO ETA OPERATIBOAK	10
6. NEURRIAK: ADIERAZLEAK, KRONOGRAMA ETA ARDURADUNAK	16
7. IV. PLANAREN GAUZATZEAREN INGURUKO ADIERAZLEAK	38
8. NEURRI ETA BALIABIDEAK	60
9. ERMUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN KUDEAKETA- ETA JARRAIPEN-EGITURAK.....	73
9.1. Plana kudeatzeko egiturak	73
9.2. Kudeaketa-sistemaren funtsezko elementuak	75
9.3. Aurrekontua.....	76

1. SARRERA

Ermuko Udalak ibilbide luzea dauka Berdintasun politiken garapenean eta, azken urteetan, ekimen eta proiektu ezberdinak sortu dira. Orain dela hamarkadetatik, hiri honek Ermua hiri berdinzale eta aske bilakatzeko konpromezua du, EAEn aitzindaria izanik Aukera Berdintasunerako Saila eta Emakumeen etxea sortzen.

Eredu patriarkala, androzentriko eta sexista alde batera uzten duen berdintasunezko gizarte baterantz joateak ahaleginak behar izaten ditu, hiritarren artean ez ezik, berdintasuna barne mailan sustatuz, udaleko antolakuntzan eredu izanik. Udala, bizitzako alderdi eta etapa guztietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen duen kultura instituzionala sustatzera konprometitzen da. Marko honetan ezartzen da dokumentu honetan aurkeztzen den, Ermuko Udaleko Berdintasunerako IV. Plana, aurreko Planei jarraipena ematen diena.

Plan honek gai horietan aurrerapausoak ematea ahalbidetuko du eta baita beste oinarritzko alderdi batzuetan ere (langileen genero formakuntza, sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako borroka eta Udala erreferentziazko erakunde bilakatzeko besteak beste). Dokumentu hau emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko beharrezkoak diren aldaketa instituzionalak eta sozialak orientatzeko oinarritzko instrumentu gisa ezartzen da.

Helburu honekin, Planak oinarritzko esku-hartzeko ardatzak identifikatzen ditu eta baita hurrengo urteetan zehar lehentasunezkoak izango diren helburu estrategikoak ere. Esku-hartzeko ardatz eta helburu estrategiko hauek antolakuntza mailan eta barneko zein kanpoko funtzionamendu mailan erronkak planteatzen dituzte eta aldaketa sozioekonomikorako erronkak ere.

Plan honek honakoak ditu erreferentzia normatibo gisa: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duena, eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII Plana.

Dokumentu hauetan jasotako arauak, alde batetik, Administrazio barnean berdintasun politikak sustatzen dituzte, eta bestetik, emakumeen beharretara erantzuteko biztanleriari zuzendutako ekimenak burutzeko neurri estrategikoak ezartzen dituzte. Arau hauen existentziaren eta aplikazioaren onuradun nagusiak emakumeak diren arren, eta bereziki diskriminazioa pairatzen duten emakumeak, onuragarriak dira biztanleria osoarentzako, giza eskubide kontua delako eta gobernu on baterako eta herrien garapen sozial eta ekonomikorako gakoa delako.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duena eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana erreferentziazko legegintza-esparru gisa baliagarria izateaz gain, helburuak, neurriak eta estrategiak zehazteko metodologia-esparru ere izan dira, udalaz gaindiko beste erakunde batzuekin era koordinatuta jarduteko.

Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana herriko agente ezberdinekin diseinatua izan da, gai honetan interesatuak dauden eta prozesu honetan parte hartu nahi izan duten pertsona zein erakundeekin eta Ermuko Udalako pertsonal tekniko zein politikoa.

Honakoak dira Ermuko IV. Berdintasunerako Plana gidatuko dituzten printzipioak:

01 PARADIGMA FEMINISTA

Feminismoa izango da IV Planeko printzipio gidaria, pentsamendu feministaren ildo eta dimentsio guztiak barne hartuz. COVID-19ak eta bizi dugun krisi sozial, sanitario eta ekonomikoak agerian utzi du agenda feminista indartzeko eta garapen jasangarrira orientatzeko garrantzia.

02 MAINSTREAMING

Lanerako eta analisirako metodologia gisa, ikuspegi honek agerian uzten ditu genero diskriminazioak eta ondorioz hauei hel diezaiokegu. Erraminta eta estrategia bat da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa politika publikoetan txertatzea ahalbidetzen duena, errekurso guztietara sarbidea berdintasunean ematen dela bermatzeko, politika publikoak genero arrakalak kontuan izanda planifikatzeko eta politika hauek berdintasun erreala lortzeko bidean izandako emaitzak eta eragina identifikatu eta ebaluatzeko.

03 EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Plan honetan ahalduntze feminista botere eskuratze prozesu gisa ulertzen da, aldaketa indibidualak eta ekintza kolektiboak barne hartzen dituen eta emakumeen mendeko posizioa erreproduzitzen eta emakumeen eta gizonen arteko desparekotasun erlazioak iraunarazten dituzten prozesu eta egituren aldaketa inplikatzeko duena.

04 IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

Ikuspegi intersekzionalak genero perspektiba instrumentu eta esku-hartze guztietan barneratzea dakar, eremu eta maila guztietan, aukera berdintasuna eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio eza bermatzeko baldintzak sortzeko. Ikuspegi honetatik, emakumeen bizitza ezin da ulertu era aislatuan, generoa soilik kontuan izanik, beste faktore batzuekin erlazonaturik ulertu behar delarik (klasea, jatorria, ezgaitasuna eta abar). Honek errealitatearen konplexutasuna ulertzen laguntzen du eta konkretuki, gizarte-ezberdintasunak eta diskriminazioa.

Printzipio hauek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin.

2. ARAU ESPARRUA

Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren oinarri dira azken urteotan nazioarte mailan eta estatu, autonomi erkidego edo udal mailan onartutako testu legalak. Plan honek erreferentziazkoa duen hainbat esparrutako (nazioartekoa, estatukoa, erkidegokoa eta aldundikoa) araudiak hartu ditu erreferentzia eta legezko marko gisa:

NAZIOARTEKO MAILAN

- Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, Nazio Batuen (Garapen Jasangarrirako Helburuak) (2015).
- Pekinen egindako Emakumei buruzko IV. Mundu Konferentzia (1995)

EUROPA MAILAN

- Europar Batasunaren Genero Berdintasunerako estrategia 2020-2025 aldirako.
- Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzkoa (Istanbuleko Hitzarmena, 2011).

ESTATU MAILAN

- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa eta Martxoaren 1eko.
- Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren Neurriak (2017).

AUTONOMIA-ERKIDEGO MAILAN

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duena.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

FORU MAILAN

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Agindua, ekainaren 20koa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI Foru Plana (2021-2024)

UDAL MAILAN

- Berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako Plan eta Protokolo espezifikoak.
- Proiektu estrategiko lokalak: 2030 hiri agenda eta beste batzuk.

Dokumentu honen sorkuntzan bi erreferentzia azpimarratu beharra daude: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duena eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII Plana.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duena.

Lehenengo tituluak emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, maila administratibo bakoitzeko funtzioak definitzen ditu, Autonomia Estatutuko 10.39 artikuluan, LHLko 6 eta 7 c.2 artikuluetan, Estatutuan (9.2 artikulua) eta arau komunitarioetan (Europar Batasuneko Hitzarmeneko 3.2 artikulua) ezarritako kompetentzietan oinarrituta. Hauek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintza erreal eta efektiboak sustatzera derrigortzen dituzte botere publikoak.

Halaber, oinarritzko antolaketa instituzionala eta hauen koordinazio mekanismoak ezartzen ditu, Legean jasotako neurrien finantzaketa irizpideak eta kolaborazio finantzariorako formula posibleak erregulatzen ditu.

“3.artikulua – Printzipio orokorrak.

Ondokoak dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak:

1. Tratu-berdintasuna.
2. Aukera-berdintasuna.
3. Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea.
4. Dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea.
5. Genero-ikuspegia txertatzea.
6. Ekintza positiboa.
7. Generoaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.
8. Ikuspegi interseksionala txertatzea.
9. Sexu- edo genero-identitatearen, sexu-orientazioaren, gorputz-autonomiaren eta autodeterminazioaren garapen askea.
10. Ordezkapen orekatua.
11. Lankidetzatza, koordinazioa eta nazioartekotzea.
12. Emakumeen ahalduntzea.
13. Gizonen inplikazioa.
14. Parte-hartzea.
15. Berrikuntza, gardentasuna eta kontu-ematea.
16. Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea.”

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII Plana

EAErako berdintasunaren alorrean lehentasunak ezartzen ditu 2018-2021 bitartean, lau zutabetan egituraturik: Gobernu ona, Emakumeen Ahalduntzea, Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Lurralde mailan, Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako VI Plan Forala (2021-2024) eta 127/2020 Dekretu Forala, abenduaren 22koa, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-Sarea arautzen duena onartzea nabarmendu beharra dago. Azken hau instituzioen (Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bizkaiko herrien eta emakumeen eta

gizonen berdintasunean konpetentziak dituzten beste entitate batzuen) arteko koordinazio eta lanerako eremu gisa ulerturik.

3. PLANAREN INDARRALDIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV Planak berdintasun alorrean agenda politikoa jasotzen du hurrengo bost urteetarako (2023-2027).

4. LAN PROZEDURA

Aipatutako helburuak lortzeko fase ezberdinetan egituratutako prozedura jarraitu da, aurretik aipatutako oinarri legalak eta Emakundeko VII Berdintasunerako Plana ardatz harturik.

Metodologia parte-hartzailea izan da, eta teknika kuantitatibo eta kualitatiboen bidez gauzatu da. Ekintza hauekin, Ermuko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV Plana burutzeko beharrezkoa den informazioa jasotzeaz gain, biztanleriaren parte hartzea bermatu da, lortu nahi den ezaugarri metodologikoetako bat izanik.

8 hilabete iraun duen udaleko berdintasun politiken hausnarketa, kontraste eta zehaztapen prozesu baten bitartez definitu da IV Plana. **Aurreko Berdintasunerako Planaren ebaluaketatik** abiatuta, gaur egungo egoera aztertu da eta lan-ildoak eta etorkizunerako erronkak ezarri dira. Azkenik, hauek lortzeko estrategia diseinatu da. Horretarako, lehenengo pausua III Planeko ebaluazioko informazioa aztertzea eta interpretatzea izan da lehen pausoa. Hasierako fase honetan aurkezpen saio bat burutu da Udal Sailen Zuzendaritzekin prozesua aurkezteko, kontrastea egiteko eta ekarpenak jasotzeko.

Ebaluazio honetaz gain, informazio kuantitatiboa jasotzeko **bigarren mailako iturrietara** jo da: Ermuko Udalako sail ezberdinetan eskuragai dauden datuak (Indarkeria Matxistaren Aurkako Udal Plana, Ermuko jarduera fisikoko eta kiroleko Plana, Ermuko jatorri atzerritarreko emakumeen gizarteratzearen inguruko ikerketa...) eta beste erakunde batzuek burututako informeak, analisiak, azterlanak eta ikerkuntzak (Emakunde, Lanbide, ...).

Informazio kualitatiboa jasotzeko lehen mailako iturrietara jo da, **sakoneko elkarriketen, lan taldeen eta pertzepzio inkesten** bitartez.

Bi izan ziren lan taldeak; alde batetik, saio bat burutu da **Berdintasun Kontseiluarekin**, lau emakumek eta gizon batek parte hartu dutelarik. Lehen saio honen helburua Plana gidatu duten proposamen irekia, egitura eta ardatzak aurkeztea izan da, baita helburu estrategikoak eta operatiboak aurkeztea ere, arreta berezia jarritz Ahalduntze Feminista, Garapen Jasangarrian berdintasuna eta Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak ardatzetan.

Beste alde batetik, bigarren saio bat burutu da udaleko **talde teknikoarekin** Planaren garapenerako indargune eta zailtasunak identifikatuz, mainstreamingaren estrategia ezartzeko erronkak nabarmenduz eta berdintasun politikak sustatuz. Saio honetan hiru emakumek eta bi gizonek parte hartu dute.

Gainera, Ermuko Udaletik bultzatutako berdintasun politikari dagokienez biztanleriaren iritzia eta hobetu beharrekoak ezagutzeko, **inkesta bat prestatu da udaleko web-gunearen bitartez**. Herritarrei inkesta bat egitea izan da biderik egokiena Ermuko emakume eta gizonen eguneroko egoera, behar eta eskariak modu esanguratsuan identifikatzeko. Guztira 50 pertsonak erantzun zioten inkestari: 29 emakumek eta 21 gizonek.

Prozesu guztia **talde eragile** batek gidatua izan da, Gizarte Politiketako zuzendariak, Berdintasuneko teknikariak eta zinegotziak eta Daitekeko taldeak osatzen dutelarik talde hau. Talde honek burutu du, Berdintasunerako IV. Planaren garapenaren diseinua, ezarketa eta sustapena.

Datu kuantitatibo zein kualitatiboak jaso ostean, prozesua edukien proposamenen zirriborroarekin amaitu da, honek aurreko prozesuko informazio eta iradokizun guztiak jasotzen dituelarik. Dokumentu hau **pertsonal teknikoari eta politikoari bidali** da, azken zuzenketa proposamena ahalbidetuz.

5. HELBURU ESTRATEGIKO ETA OPERATIBOAK

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA

1. Helburu estrategikoa: Konpromezu politikoa

1.1 Helburu operatiboa >

Udalak berdintasunarekiko duen konpromezu politikoa areagotzea eta ikusaraztea.

1.2 Helburu operatiboa >

Udaleko genero arkitektura indartzea mainstreaming estrategien bitartez, urteko plangintza eta udaleko Sail, programa eta proiektuen jarraipena hobetuz.

2. Helburu estrategikoa: Genero-ikuspegia langileen kudeaketan

2.1 Helburu operatiboa >

Udaleko langileen politika genero-ikuspegitik kudeatzea, hau da, sexu aldagaia kontuan izatea datuak jasotzerakoan eta emakumeen eta gizonen ezartzen diren genero-harreman sozialak islatzen dituen azterketa-irizpideak izatea.

2.2 Helburu operatiboa >

Berdintasunaren inguruko formazio praktikoa, progresiboa eta iraunkorra bermatzea Udaleko langileei zuzenduta.

3. Helburu estrategikoa: Genero-ikuspegia lan prozeduretan

3.1 Helburu operatiboa >

Genero-ikuspegia integratzea udaleko aurrekontuetan

3.2 Helburu operatiboa >

Udaleko informazioaren, ikerketen eta estatistiken ekoizpenean genero-ikuspegia bermatzea.

3.3 Helburu operatiboa >

Genero-ikuspegia integratzea, ikuspegi inklusibo batetik, komunikazio eta informazio ekintza guztietan eta Udalak eta mendeko erakundeek sortutako euskarri guztietan.

3.4 Helburu operatiboa >

Araudiaren, ordenantzen, planen eta udal-proiektu estrategikoen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa ziurtatzea.

3.5 Helburu operatiboa >

Kontratu, dirulaguntza eta udaleko hitzarmen kolektiboetan berdintasun klausulen integrazio eta jarraipen sistematikoarekin jarraitzea, hauen eraldaketa (kalitatea eta eragina) gaitasuna aztertuz udaleko Sail guztietan.

3.6 Helburu operatiboa >

Ordezkaritza- eta partaidetza-organoetan ordezkaritza orekatua ziurtatzea.

4. Helburu estrategikoa: Barneko eta instituzioen arteko koordinazioaren eta elkarlanaren hobekuntza eta artikulazioa berdintasunerako gako bezala

4.1 Helburu operatiboa >

Koordinazioa eta elkarlana indartzea berdintasunari zeharlerrokotasunetik heltzeko Ermuko Udaleko Sail, Unitate eta zerbitzu guztietan.

4.2 Helburu operatiboa >

Alor honetan erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzaren egokia sustatzen jarraitzea.

5. Helburu estrategikoa: Parte hartzea eta intzidentzia: Emakumeen ahotsa eta mugimendu feminista nabarmenduz

5.1 Helburu operatiboa >

Emakumeen eta mugimendu feministaren parte hartzea eta ekarpenak ahalbidetzen dituen prozesu eta lan metodologiak sustatzea, udalerri mailan egiten diren lanetara batuz.

AHALDUNTZE FEMINISTA

6. Helburu estrategikoa: Emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa laguntzea perspektiba feministatik

6.1 Helburu operatiboa >

Aniztasunean genero kontzientzia, autoestimua eta emakumeen autonomia sustatzen dituzten prozesuak sortu eta finkatzea.

6.2 Helburu operatiboa >

Emakumeen parte hartzea sustatzea aktibitate fisikoan eta kirol jardueretan, sorkuntza intelektualean eta artistikoan, haien lorpen eta sorkuntzak ikusaraziz eta aitortuz eta memoria historikoaren berreskurapena sustatuz.

7. Helburu estrategikoa: Emakumeen eta mugimendu feministaren ahalduntze soziopolitikoa laguntzea

7.1 Helburu operatiboa >

Emakumeen mugimendu asoziatiboa eta mugimendu feminista indartzen eta gaitzen laguntzea, ikuspegi intersektzionaletik udaleko politika publikoetan parte hartu dezaten.

BERDINTASUNA GARAPEN JASANGARRIAN. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO

8. Helburu estrategikoa: Berdintasuna eraldaketa ekonomiko eta sozialerako beharrezko balore gisa aitortzea

8.1 Helburu operatiboa>

Hezkidetza programen bitartez berdintasuna eta aniztasuna sustatzea.

8.2 Helburu operatiboa>

Zaintzen berdintasunezko kultura sustatzea, hauen horniketa birbanatzeko eta gizonak erantzukidetasunetik zaintzetan sartzeko.

9. Helburu estrategikoa: Emakumeen¹ autonomia ekonomikoa

9.1 Helburu operatiboa >

Emakumeen laneratzera zuzendutako formakuntza eta lan politika espezifikoak ezartzea.

9.2 Helburu operatiboa >

Enpresei eta herriko erakundeei haien kultura, estrategia eta kudeaketa ereduan berdintasuna ezartzen laguntzea, emakumeei autonomia gehiago emateko.

10. Helburu estrategikoa: Zaintzen ekonomia feminista

10.1 Helburu operatiboa >

Kontziliazioari eta zaintzei dagokienez biztanleriaren beharrak identifikatzea eta informazio eta horniketa baliabideak gehitzea.

10.2 Helburu operatiboa >

Lurralde-diseinuak modu jasangarri batean bizitzaren zaintzarekin erlazionatutako beharrak eta eskaerak kontutan hartzea ahalbidetzea.

¹ 'Emakume' kategoria erabiltzen dugu, baliozkoa delako artikulazio politikorako, genero sistema bitarretik haratago gorputz, bizipen, gaitasun, ibilbide eta identitate aniztasuna aitortzen dugun arren.

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

11.Helburu estrategikoa: Ikuspegi intersektionaletik balioak aldatzea indarkeria matxistaren prebentziorako

11.1 Helburu operatiboa >

Sentsibilizazio eta informazio ekimenak garatzea, indarkeria matxista betikotzen duten sinbolo eta egiturak aldatzea, erreparazioaren ikuspegia ezartzea.

12.Helburu estrategikoa: Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako helburuen eta ekintzen integrazioa eta koordinazioa ahalbidetzeko marko estrategikoa sortzea

12.1 Helburu operatiboa >

Udalak indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko konpromezu egonkorra izatea.

13.Helburu estrategikoa: Emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioan, prebentzioan eta formazioan aurrerapausoak ematen jarraitzea

13.1 Helburu operatiboa >

LGTBIQ+ pertsonen pairatzen duten diskriminazioari aurre egiteko ekimenak burutzea.

6. NEURRIAK: ADIERAZLEAK, KRONOGRAMA ETA ARDURADUNAK

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA**GO.HE.1. Konpromezu politikoa.**

GO.HO.1.1. Udalak berdintasunarekiko duen konpromezu politikoa areagotzea eta ikusaraztea.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.1.1.1. Berdintasunerako udal-ordenantza 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duena, ezarritakora egokitzen den aztertzea, ordenantza indarrean jartzeak udal-araudian eragin ditzakeen aldaketak identifikatzeko.	Berdintasunerako Alorra	✓				
GO.1.1.2. Udaleko berdintasun ordenantza garatu eta onartzea.	Gobernu-organoak Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.1.1.3. Berdintasuneko udal ordenantzaren jarraipena eta ebaluaketa burutzeko prozesuak ezartzea.	Alor guztiak	✓				
GO.1.1.4. Berdintasun-eduki espezifikoak duten espazioak sortzea Alorretako zuzendaritza-bileretan.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA**GO.HE.1. Konpromezu politikoa.**

GO.HO.1.2. Udaleko genero arkitektura indartzea mainstreaming estrategien bitartez, urteko plangintza eta udaleko Sail, programa eta proiektuen jarraipena hobetuz.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.1.2.1. Udalaren genero-arkitekturaren garapenean aurrera egitea, udalaren berdintasun-politika gauzatzeko lagungarri izan dadin, Udaleko arlo bakoitzean berdintasunerako erreferente-figura sortuz.	Gobernu-organoak Zuzendaritza Orokorra Alor guztiak	✓	✓			
GO.1.2.2. Aldizka analisi bat burutzea eta Udaleko Alorren beharren eguneraketa egitea, era iraunkorrean berdintasunaren inguruko funtzioak aurrera eramaten dituen egitura egokia izateko.	Alor guztiak		✓		✓	
GO.1.2.3. Urtero diseinatzen diren pertsonal politikoari zuzendutako berdintasunaren inguruko formakuntzetan parte hartzea.	Gobernu-organoak	✓	✓	✓	✓	✓

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA**GO.HE.2. Genero-ikuspegia langileen kudeaketan.**

GO.HO.2.1. Udaleko langileen politika genero-ikuspegitik kudeatzea, hau da, sexu aldagaia kontuan izatea datuak jasotzerakoan eta emakumeen eta gizonen ezartzen diren genero-harreman sozialak islatzen dituen azterketa-irizpideak izatea.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.2.1.1. Udaletxeko langileen artean emakumeen eta gizonen egoeraren inguruko barne diagnostikoa egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez udaletxera atxikitutako langileen formakuntza beharrak aztertuz eta proposamenak eginez. * Ordezkaritza sindikalaren parte-hartzearekin.	Idazkaritza-Pertsonen Kudeaketa-Prestakuntza Berdintasunerako Alorra	✓				
GO.2.1.2. Barneko Berdintasun Plan bat garatzea, IV Berdintasun Plan hau kontuan izanik, araudi autonomikoa eta estatuko araudia betez. * Ordezkaritza sindikalaren parte-hartzearekin.	Idazkaritza-Pertsonen Kudeaketa-Prestakuntza Berdintasunerako Alorra	✓	✓			
GO.2.1.3. Sexu jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko Protokoloa egin, zabaldu eta ezartzea Udalean, emaitzak aldizka ebaluatuz. * Ordezkaritza sindikalaren parte-hartzearekin.	Idazkaritza-Pertsonen Kudeaketa-Prestakuntza Berdintasunerako Alorra	✓	✓	✓	✓	✓
GO.2.1.4. Udalean sartzen diren langileentzako Harrera Planean berdintasunerako udal-politikei buruzko informazioa sartzea.	Idazkaritza-Pertsonen Kudeaketa-Prestakuntza Berdintasunerako Alorra	✓	✓			

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA						
GO.HE.2. Genero-ikuspegia langileen kudeaketan.						
GO.HO.2.2. Berdintasunaren inguruko formazio praktikoa, progresiboa eta iraunkorra bermatzea Udaleko langileei zuzenduta.						
EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.2.2.1. Urteko formakuntza planen bidez formakuntza proposamen bat egitea, bi urtean behin komunikazio ez sexistaren inguruko saio bat dagoela bermatuz, langile guztiei heltzeko, baita langile berriei ere.	Alor guztiak		✓		✓	
GO.2.2.2. Genero-ikuspegia lan-jardunean txertatzeari eta genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiteko moduari buruzko berriazko prestakuntza egitea.	Idazkaritza-Pertsonen Kudeaketa- Prestakuntza Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.2.2.3. Kontratu, dirulaguntza eta udaleko hitzarmenetan berdintasun klausulak barneratzearen inguruko formakuntza egitea.	Idazkaritza-Pertsonen Kudeaketa- Prestakuntza Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.2.2.4. Aurrekontuak genero perspektibarekin burutzearen eta berdintasuneko gastuaren definizioaren inguruko formakuntza egitea.	Idazkaritza-Pertsonen Kudeaketa- Prestakuntza Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA**GO.HE.3. Genero-ikuspegia lan prozeduretan.****GO.HO.3.1. Genero-ikuspegia integratzea udaleko aurrekontuetan.**

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.3.1.1. Udaleko aurrekontuak aztertzea genero perspektibatik, jarraipen indikatzaileak garatuz, Sail eta programa bakoitzeko, aurrekontu programen eragin potentziala genero perspektibatik aztertuz eta ebaluatuz, urtero onartuak izan aurretik. Ondoren, aurrekontuen jardutea amaitutakoan, emakumeen eta gizonen berdintasunean hauek burutzearen eragin errearen inguruan hausnartzea.	Gobernu-organoak Zuzendaritza Orokorra Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.3.1.2. Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuen genero-eraginari buruzko txostena egitea, genero-aurrekontuari buruzko ikuspegi berriarekin.	Gobernu-organoak Zuzendaritza Orokorra Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓

GO.HO.3.2. Udaleko informazioaren, ikerketen eta estatistiken ekoizpenean genero-ikuspegia bermatzea.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.3.2.1. Interseksionalitateari eta kategoriatan ez-bitarrari buruzko genero-adierazleak sortzea eta ezartzea esku-hartze eremu bakoitzean. Interseksionalitatearen lantzeari esker, arraza, sexu, klase, sexualitate eta abarren identitateen arteko gainjartzea egiturazko azterketan barneratzea ahalbidetuko du.	Alor guztiak		✓	✓	✓	✓
GO.3.2.2. Galdetegi, eskaera horri, erregistro eta datu baseetan sexu aldagarriaren egoeraren inguruko diagnostikoa burutzea eta aldagarri hau gehitzea egoten ez bada.	Berdintasunerako Alorra			✓		

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA**GO.HE.3. Genero-ikuspegia lan prozeduretan.**

GO.HO.3.3. Genero-ikuspegia integratzea, ikuspegi inklusibo batetik, komunikazio eta informazio ekintza guztietan eta Udalak eta mendeko erakundeek sortutako euskarri guztietan.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.3.3.1. Udaleko aurrekontuak aztertzea genero perspektibatik, jarraipen indikatzaileak garatuz, Alor eta programa bakoitzeko, aurrekontu programen eragin potentziala genero perspektibatik aztertuz eta ebaluatuz, urtero onartuak izan aurretik. Ondoren, aurrekontuen jardutea amaitutakoan, emakumeen eta gizonen berdintasunean hauek burutzearen eragin errealaren inguruan hausnartzea.	Alkatetza Kabinetea: Komunikazioa eta Sare Sozialak Berdintasunerako Alorra	✓	✓			
GO.3.3.2. Udaleko Harrera Planean komunikazioaren erabilera ez-sexistari eta inklusiboari buruzko baliabideak sartzea, udal-langile berriek izan ditzaketen zalantzak argitzea.	Idazkaritza-Pertsonen Kudeaketa-Prestakuntza Berdintasunerako Alorra	✓	✓			
GO.HO.3.4. Araudiaren, ordenantzen, planen eta udal-proiektu estrategikoen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa ziurtatzea.						
EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.3.4.1. Urtero Udaletxeko bi Alorren araudi, plan eta proiektu estrategikoen generoaren araberako eraginaren ebaluazioa burutzea; 2027rako Udaletxeko Alor guztietara heltzeko helburuarekin.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA**GO.HE.3. Genero-ikuspegia lan prozeduretan.**

GO.HO.3.5. Kontratu, dirulaguntza eta udaleko hitzarmen kolektiboetan berdintasun klausulen integrazio eta jarraipen sistematikoarekin jarraitzea, hauen eraldaketa (kalitatea eta eragina) gaitasuna aztertuz udaleko Alor guztietan.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.3.5.1. Errealitatea aztertzea kontratuetan berdintasun irizpideekiko dagoen derrigortasun legala betetzen dela bermatzeko.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.3.5.2. Alor honetan hobekuntzak burutzeko, praktika onak elkarbanatzeko eta proposamenak egiteko lan-talde bat sortzea.	Berdintasunerako Alorra			✓		

GO.HO.3.6 Ordezkaritza- eta partaidetza-organoetan ordezkaritza orekatua ziurtatzea.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.3.6.1. Udaleko agertzeetan errepresentazio parekidea sustatzea, emakume eta gizonen presentzia bermatzea helburutzat hartuz.	Gobernu-organoak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.3.6.2. Lantaldeen, barne-batzordeen eta abarren osaera paritarioa dela zaintzea. Ordezkaritza edo osaera paritariotzat hartuko da emakumeen eta gizonen presentzia bermatuta dagoen egoera, halako moldez non, dagokion taldean, sexu bakoitzeko pertsonak ez diren izango guztizkoaren % 60 baino gehiago, ez eta % 40 baino gutxiago ere.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.3.6.3. Udaletxeko Kontseilu eta parte hartze organo guztietako araudietan osaeran parekidetasuna bermatuko dela adieraztea.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.3.6.4. Lehiaketetan edo sari banaketetan Udaletxeko diru laguntzekin edo babesarekin osatutako epaimahaietan parekidetasuna bermatzea.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA**GO.HE.4. Barneko eta instituzioen arteko koordinazioaren eta elkarlanaren hobekuntza eta artikulazioa berdintasunerako gako bezala.**

GO.HO.4.1. Koordinazioa eta elkarlana indartzea berdintasunari zeharlerrokotasunetik heltzeko Ermuko Udaleko Sail, Unitate eta zerbitzu guztietan.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.4.1.1. IV Berdintasun Planaren urteko Plan Operatiboa egitea. Honetan sail bakoitzean aurrera eramango diren ekintzak zehaztuko dira eta baita honi zuzendutako aurrekontua ere.	Zuzendaritza Taldea Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.4.1.2. Talde Mistoak gutxienez bi bilera egingo ditu urtean plana koordinatzeko; lehenengoa, urteko plan operatiboa lantzeko, eta bigarrena, ebaluazioa lantzeko.	Talde politiko-tekniko mixtoa	✓	✓	✓	✓	✓
GO.4.1.3. Urtero bilera informatibo bat burutuko da politika-mailan, non Berdintasunerako Alorra Planaren betetze mailaren inguruan hitz egingo den.	Berdintasunerako Alorra	✓	✓	✓	✓	✓
GO.4.1.4. Berdintasun Alorrak eta Berdintasun kontseiluak urtean bilera bat gutxienez burutuko du, Planaren betetze mailaren inguruan hitz egiteko.	Berdintasunerako Alorra	✓	✓	✓	✓	✓
GO.4.1.5. Planaren jarraipena egiteko erraminta informatiko espezifiko bat izatea.	Berdintasunerako Alorra	✓				
GO. OO. 4.2. Alor honetan erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzak egokia sustatzen jarraitzea.						
EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.4.2.1. Herrien arteko eta instituzioen arteko elkarlan eta koordinazio guneetan parte hartzea (Berdinsarea, Bizkaiko Foru Aldundia, Bizkaiko Lurralde Sarea, EUEDEL eta Emakunde).	Berdintasunerako Alorra	✓	✓	✓	✓	✓

GOBERNU ONA ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA**GO.HE.5. Parte hartzea eta intzidentzia: Emakumeen ahotsa eta mugimendu feminista nabarmenduz.**

GO.HO.5.1. Emakumeen eta mugimendu feministaren parte hartzea eta ekarpenak ahalbidetzen dituen prozesu eta lan metodologiak sustatzea, udalerrri mailan egiten diren lanetara batuz.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
GO.5.1.1. Parte hartzea eta elkarlana nola ematen den adosteko batzorde sektorialen elkarlan eta parte hartze araudiak aztertzea.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
GO.5.1.2. Batzar irekiak burutzea elkarlan prozesuen eta parte hartze guneen inguruko akordioak berrikusteko eta honen inguruko akordioetara iristeko.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓

AHALDUNTZE FEMINISTA**AF.OE.6. Emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa laguntzea perspektiba feministatik.**

AF.OO.6.1. Aniztasunean genero kontzientzia, autoestimua eta emakumeen autonomia sustatzen dituzten prozesuak sortu eta finkatzea.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
AF.6.1.1. Beste Emakumeen Etxe batzuekin sarean lana egitea bultzatzea; aukera ezberdinak ezagutzea, bertan parte hartzen duten emakumeak ezagutzea, sare aukerak ezagutzea.	Berdintasunerako Alorra	✓	✓	✓	✓	✓
AF.6.1.2 Ahalduntzera bideratuta dauden programa eta zerbitzuak indartzeko eta ezagutarazteko ekimen berritzaileak burutzea, emakume gazteetan, emakume helduetan, emakume arrazializatueta, emakume migratueta, dibertsitate funtzionala duten emakumeetan eta abar atentzio berezia jarritz.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
AF.6.1.3. Ahalduntze eskolaren programazioa bultzatzea, dibertsifikatzea eta haren irismena hedatzea eduki zein ordutegi edo iraupen aldetik, ikuspuntu intersektional batetik. Hau da, emakumeak talde homogeneo bat ez direla kontuan izanda eta arreta berezia jarritz emakumeak arraza, sexu, klase, sexualitate... arrazoiengatik diskriminatuak ez direla bermatzen.	Berdintasunerako Alorra	✓	✓	✓	✓	✓
AF.6.1.4. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen ahalduntzea bultzatzeko neurri espezifikoak hartzea: talde egonkorak sortzea, zapalkuntza konkretuak lantzeko saioak antolatzea eta abar.	Berdintasunerako Alorra	✓	✓	✓	✓	✓

AHALDUNTZE FEMINISTA**EF.OE.6. Emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa laguntzea perspektiba feministatik.**

EF.OO.6.2. Emakumeen parte hartzea sustatzea aktibitate fisikoan eta kirol jardueretan, sorkuntza intelektualean eta artistikoan, haien lorpen eta sorkuntzak ikusaraziz eta aitortuz eta memoria historikoaren berreskurapena sustatuz.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
EF.6.2.1. Ermuko emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko eta ikusarazteko proiektuak burutzea, ikerketa beka baten sorkuntzaren bidez.	Berdintasunerako Alorra			✓		✓
EF.6.2.2. Ekintza positibo neurriak martxan jartzea jai eremuetan, produkzio artistikoetan, literarioetan, musikaletan, ikus-entzunezko produkzioetan eta abar emakumeen parte hartzea handiagotzeko, Ermuko eskaintza kulturean eta honen inguruko erabakiak hartzerakoan emakumeen presentzia bermatuz.	Berdintasunerako Alorra Ermua Kirolak Euskara Gazteria Hezkuntza Kultura	✓	✓	✓	✓	✓
EF.6.2.3. Emakumeen kirol jarduera eta hauek kirolean duten presentzia bistaratzen duten ekintzak diseinatzea eta aurrera eramatea, Ermua Kirolak-ek parte hartzen duen programetan eta lehiaketen antolakuntzan genero-ikuspegia kontuan izanik. Adibidez, irizpide ez androzentrikoak izatea kirol lehiaketetan, sari ekonomiko berdinak, ordutegiak eta espazioak (emakumeen proben ikusgarritasuna ahalbidetuz), kartelak eta promoziorako materiala, epaile eta arbitro kopurua, eta abar.	Ermua Kirolak	✓	✓	✓	✓	✓
EF.6.2.4. Taldean korrika egitera edo bizikletan ibiltzera joan nahi duten emakumeentzat elkartze puntuak erraztea, ikastaroak edo entrenamenduak antolatzea (Mugi edo Hiribili bitartez, adibidez), kirola kanpoan egitea sustatuz.	Ermua Kirolak	✓	✓	✓	✓	✓
EF.6.2.5. Estrategia hezkidetzailleak sustatzea kirol eremuan, baita, kirolean emakume eta gizonen parte hartzea errazten duten testuinguruen sorkuntza ere. Eskola Kirolean genero perspektibaren txertaketaren bidez, monitoreen formakuntzaren bidez edo familiekin orientazio pedagogikoaren bidez, besteak beste.	Berdintasunerako Alorra Ermua Kirolak Euskara Gazteria Hezkuntza Kultura	✓	✓	✓	✓	✓

AHALDUNTZE FEMINISTA**AF.OE.7. Emakumeen eta mugimendu feministaren ahalduntze soziopolitiko laguntzea.**

AF.OO.7.1. Emakumeen mugimendu asoziatiboa eta mugimendu feminista indartzen eta gaitzen laguntzea, ikuspegi intersektionaletik udaleko politika publikoetan parte hartu dezaten.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
AF.7.1.1. Udaleko diru laguntzen oinarrien inguruan hausnartzea eta hobekuntzak proposatzea: helburutzat duen publikoa, puntuazio irizpideak eta abar.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
AF.7.1.2. Berdintasun proiektuetarako diru laguntzen deialdietara aurkeztu diren emakumeen elkarteei eta berdintasuna sustatzen duten erakundeei aholkularitza eskaintzea.	Berdintasunerako Alorra	✓	✓	✓	✓	✓
AF.7.1.3. Diskriminazio intersektional egoeran dauden emakumeei zuzendutako ahalduntze ekimenak babestea.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
AF.7.1.4. Berdintasun Kontseilua sendotzea eta udal-ekintzan txertatzea, emakumeek udal-politiketan parte hartzeko eta eragiteko.	Berdintasunerako Alorra	✓				

BERDINTASUNA GARAPEN JASANGARRIAN. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO**EK.HE. 8. Berdintasuna eraldaketa ekonomiko eta sozialerako beharrezko balore gisa aitortzea.****EK.HO. 8.1. Hezkidetza programen bitartez berdintasuna eta aniztasuna sustatzea.**

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
EK.8.1.1. Berdintasunerako hezkidetza proiektu bat bultzatzea, ikastetxeekin elkarlana garatuz eta hezkuntza komunitatea barneratuz (ikasleak, irakasleak, familiak eta abar) agenda feministak nabarmendutako egunetan koordinazioa egiteko (martxoak 8, maiatzak 17 eta azaroak 25).	Berdintasunerako Alorra	✓	✓	✓	✓	✓
EK.8.1.2. Udalaren eta hezkuntza komunitatearen arteko lan koordinatua osatzea beharrak identifikatzeko, herrian hezkidetza mahai edo foro bat martxan jarritz.	Berdintasunerako Alorra Ermua Kirolak Euskara Gazteria Hezkuntza Kultura		✓			
EK.8.1.3. Genero identitatearen dibertsitatearen eta askatasunaren inguruko sentsibilizazio kanpainak egiten jarraitzea.	Alor guztiak	✓	✓	✓	✓	✓
EK.8.1.4. Gazteei zuzendutako programen kontratazio-pleguen bidez, kontratatzen diren langileek hezkidetzari, prebentzioari eta jarrera matxisten identifikazioari buruzko prestakuntza dutela bermatzea.	Alor guztiak		✓	✓	✓	✓

BERDINTASUNA GARAPEN JASANGARRIAN. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO**EK.HE. 8. Berdintasuna eraldaketa ekonomiko eta sozialerako beharrezko balore gisa aitortzea.**

EK.HO. 8.2. Zaintzen berdintasunezko kultura sustatzea, hauen horniketa birbanatzeko eta gizonak erantzukidetasunetik zaintzetan sartzeko.

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
EK.8.2.1. Maskulinitate eredu berriak hezkuntza formalean eta ez formalean lantzeko sensibilizazio eta hausnarketa guneak sortzean eragitea.	Alor guztiak		✓	✓	✓	✓
EK.8.2.2. Sindikatuekin eta enpresa-sarearekin partaidetza-prozesuak hastea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko konpromisoa sendotuz, alde zuzenetik izandako esperientziak ezagutaraziz eta balioan jarritz.	Garapen ekonomikoa/tokiko garapena			✓		

BERDINTASUNA GARAPEN JASANGARRIAN. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO**EK.HE. 9. Emakumeen autonomia ekonomikoa.****EK.HO. 9.1. Emakumeen laneratzera zuzendutako formakuntza eta lan politika espezifikoak ezartzea.**

EKINTZAK	ARDURADUNA(K)	2023	2024	2025	2026	2027
EK.9.1.1. Orientazio eta aholkularitza ibilbide pertsonal eta integratua duten programak eta zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen enplegarritasun profilerak egokitutako formakuntza programak sortzea eta garatzea.	Garapen ekonomikoa/tokiko garapena Gizarte politikak	✓	✓	✓	✓	✓
EK.9.1.2. Adinaren kudeaketaren inguruko programak abiaraztea belaunaldi arteko taldeak sortuz jakintzen transmisiorako (BelaunaldiakLab, Coworking para mujeres +45, etc.).	Garapen ekonomikoa/tokiko garapena Gizarte politikak		✓			
EK.9.1.3. Komunikazio bideak (web orrialdeak edo beste batzuk) sortzea emakumeen enpleguaren inguruko datuen eta errekurtsoen inguruko informazioa modu periodikoan helarazteko.	Garapen ekonomikoa/tokiko garapena Gizarte politikak	✓				
EK.9.1.4. Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko kontratazioetarako udaleko laguntza ekonomikoak sustatzea (adingabeak barneratzen dituen), emakumeen kontziliazio pertsonala eta familiarra errazteko.	Gizarte politikak	✓	✓	✓	✓	✓
EK.9.1.5. Enpleguaren sorkuntza sustatzea, emakume langabeak lan-merkatuan sartuz eta/edo ezkutuko lanetik irteten laguntzea.	Garapen ekonomikoa/tokiko garapena Gizarte politikak	✓	✓	✓	✓	✓

*9.1 helburu operatiboa hurrengo ikerketan azaltzen diren proposamenak kontuan hartuz garatzea: Trabajadoras del hogar, cuidadoras y otras realidades
Estudio sobre la inserción sociolaboral de las mujeres de origen extranjero en Ermua (junio 2021).

BERDINTASUNA GARAPEN JASANGARRIAN. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO**EK.HE. 9. Emakumeen autonomia ekonomikoa.**
GO.2.1.3. Sexu jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko Protokoloa egin, zabaldu eta ezartzea Udalean, emaitzak aldizka ebaluatuz.

Helburu operatiboa 2.2 Berdintasunaren inguruko formazio praktikoa, progresiboa eta iraunkorra bermatzea Udaleko langileei zuzenduta.

GO.2.2.1. Urteko formakuntza planen bidez formakuntza proposamen bat egitea, bi urtean behin komunikazio ez sexistaren inguruko saio bat dagoela bermatuz, langile guztiei heltzeko, baita langile berriei ere.

GO.2.2.2. Genero-ikuspegia lan-jardunean txertatzeari eta genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiteko moduari buruzko berariazko prestakuntza egitea.

GO.2.2.3. Kontratu, dirulaguntza eta udaleko hitzarmenetan berdintasun klausulak barneratzearen inguruko formakuntza egitea.

GO.2.2.4. Aurrekontuak genero perspektibarekin burutzearen eta berdintasuneko gastuaren definizioaren inguruko formakuntza egitea.

O.E.3. Genero-ikuspegia lan prozeduretan

Helburu operatiboa 3.1. Genero-ikuspegia integratzea udaleko aurrekontuetan.

GO.3.1.1. Udaleko aurrekontuak aztertzea genero perspektibatik, jarraipen indikatzailak garatuz, Sail eta programa bakoitzeko, aurrekontu programen eragin potentziala genero perspektibatik aztertuz eta ebaluatuz, urtero onartuak izan aurretik. Ondoren, aurrekontuen jardutea amaitutakoan, emakumeen eta gizonen berdintasunean haiek burutzearen eragin errealaren inguruan hausnartzea.

GO.3.1.2. Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuen genero-eraginari buruzko txostena egitea, genero-aurrekontuari buruzko ikuspegi berriarekin.

[Estrategias para la integración de la perspectiva de género en los presupuestos públicos. Instituto de la Mujer \(Ministerio de Igualdad\)](#)

[Presupuestos de la Diputación Foral de Bizkaia. Informe de género.](#)

[Presupuestos con enfoque de género en la UPV/EHU](#)

[Presupuestos Sensibles al Género en la Comunidad Autónoma del País Vasco](#)

[Presupuestos Locales con Enfoque de Género en la CAE](#)

[Integración de la perspectiva de género en los presupuestos del Ayuntamiento de San Sebastián](#)

Helburu operatiboa 3.2. Udaleko informazioaren, ikerketen eta estatistiken ekoizpenean genero-ikuspegia bermatzea.

BG.3.2.1. Intersektionalitateari eta kategoria ez-bitarrari buruzko genero-adierazleak sortzea eta ezartzea esku-hartze eremu bakoitzean. Intersektionalitatearen lantzearen esker, arraza, sexu, klase, sexualitate eta abarren identitateen arteko gainjartzea egiturazko azterketan barneratzea ahalbidetuko du.

BG.3.2.2. Galdetegi, eskaera horri, erregistro eta datu baseetan sexu aldagarriaren egoeraren inguruko diagnostikoa burutzea eta aldagarri hau gehitzea egoten ez bada.

Helburu operatiboa 3.3. Genero-ikuspegia integratzea, ikuspegi inklusibo batetik, komunikazio eta informazio ekintza guztietan eta Udalak eta mendeko erakundeek sortutako euskarri guztietan.

BG.3.3.1. Udaleko aurrekontuak aztertzea genero perspektibatik, jarraipen indikatzaileak garatuz, Alor eta programa bakoitzeko, aurrekontu programen eragin potentziala genero perspektibatik aztertuz eta ebaluatuz, urtero onartuak izan aurretik. Ondoren, aurrekontuen jardutea amaitutakoan, emakumeen eta gizonen berdintasunean hauek burutzearen eragin errealaren inguruan hausnartzea.

[Euskararen erabilera inklusiboa. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Pikara Magazine](#)

[Lo que no se nombra no existe. Entendiendo la importancia del lenguaje inclusivo. UPV/EHU](#)

[Guía de comunicación inclusiva | Ayuntamiento de Barcelona](#)

[Guía práctica para un uso inclusivo del lenguaje en Lantegi Batuak](#)

[Género ikuspegidun komunikazioa berdintasunezko gizarterako 2021. Nafarroako Berdintasunerako Institutua](#)

[Guía de lenguaje para el ámbito de la empresa y el empleo. Emakunde 2011](#)

[Guía de lenguaje para el ámbito de la cultura. Emakunde 2010](#)

[Guía de lenguaje para el ámbito del deporte. Emakunde 2009](#)

[Guía de lenguaje para el ámbito de la salud. Emakunde 2009](#)

[Euskararen erabilera ez sexista. Emakunde 2008](#)

[Guía del lenguaje para el ámbito educativo. Emakunde 2008](#)

[UPV/EHU-n euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida \(2008\)](#)

[Recopilación de Guías sobre el uso del lenguaje no sexista. Ministerio de igualdad](#)

[Guía práctica de comunicación incluyente. Ministerio de igualdad](#)

BG. 3.3.2. Udaleko Harrera Planean komunikazioaren erabilera ez-sexistari eta inklusiboari buruzko baliabideak sartzea, udal-langile berriek izan ditzaketen zalantzak argitzeko..

Helburu operatiboa 3.4. Araudiaren, ordenantzen, planen eta udal-proiektu estrategikoen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa ziurtatzea.

BG.3.4.1. Urtero Udaletxeko bi Alorren araudi, plan eta proiektu estrategikoen generoaren araberako eraginaren ebaluazioa burutzea; 2027rako Udaletxeko Alor guztietara heltzeko helburuarekin.

[Guía para la elaboración de Informes de impacto en función del género \(PDF, 1,28 MB\)](#)

[Evaluaciones previas del impacto en función del género en las entidades locales \(PDF, 500 KB\)](#)

Helburu operatiboa 3.5. Kontratu, dirulaguntza eta udaleko hitzarmen kolektiboetan berdintasun klausulen integrazio eta jarraipen sistematikoarekin jarraitzea, hauen eraldaketa (kalitatea eta eragina) gaitasuna aztertuz udaleko Alor guztietan.

GO.3.5.1. Errealitatea aztertzea kontratuetan berdintasun irizpideekiko dagoen derrigortasun legala betetzen dela bermatzeko.

GO.3.5.2. Alor honetan hobekuntzak burutzeko, praktika onak elkarbanatzeko eta proposamenak egiteko lan-talde bat sortzea.

[Guía para la incorporación de la perspectiva de género en los contratos públicos, las subvenciones públicas, los convenios y los conciertos sociales \(PDF, 8 MB\) Emakunde 2019](#)

[Cláusulas para la igualdad de mujeres y hombres en contratos, subvenciones y convenios públicos \(PDF, 11 MB\) Emakunde 2013](#)

[Servicio de asesoramiento para promover la igualdad en la contratación pública](#)

Helburu operatiboa 3.6 Ordezkaritza- eta partaidetza-organoetan ordezkariak orekatu ziurtatzea.

GO.3.6.1. Udaleko agertzeetan errepresentazio parekidea sustatzea, emakume eta gizonen presentzia bermatzea helburutzat hartuz.

GO.3.6.2. Lantaldeen, barne-batzordeen eta abarren osaera paritarioa dela zaintzea. Ordezkaritza edo osaera paritariotzat hartuko da emakumeen eta gizonen presentzia bermatuta dagoen egoera, halako moldean non, dagokion taldean, sexu bakoitzeko pertsonak ez diren izango guztizkoaren % 60 baino gehiago, ez eta % 40 baino gutxiago ere.

GO.3.6.3. Udaletxeko Kontseilu eta parte hartze organo guztietako araudietan osakeran parekidetasuna bermatuko dela adieraztea.

GO.3.6.4. Lehiaketetan edo sari banaketetan Udaletxeko diru laguntzekin edo babesarekin osatutako epaimahaietan parekidetasuna bermatzea.

HE.4. Barneko eta instituzioen arteko koordinazioaren eta elkarlanaren hobekuntza eta artikulazioa berdintasunerako gako bezala.

Helburu operatiboa 4.1: GO.HO.4.1. Koordinazioa eta elkarlana indartzea berdintasunari zeharlerrokotasunetik heltzeko Ermuko Udaleko Sail, Unitate eta zerbitzu guztietan.

GO.4.1.1. IV Berdintasun Planaren urteko Plan Operatiboa egitea. Honetan sail bakoitzean aurrera eramango diren ekintzak zehaztuko dira eta baita honi zuzendutako aurrekontua ere.

GO.4.1.2. Talde Mistoak gutxienez bi bilera egingo ditu urtean plana koordinatzeko; lehenengoa, urteko plan operatiboa lantzeko, eta bigarrena, ebaluazioa lantzeko.

GO.4.1.3. Urtero bilera informatibo bat burutuko da politika-mailan, non Berdintasunerako Alorra Planaren betetze mailaren inguruan hitz egingo den.

GO.4.1.4. Berdintasun Alorrak eta Berdintasun kontseiluak urtean bilera bat gutxienez burutuko du, Planaren betetze mailaren inguruan hitz egiteko.

GO.4.1.5. Planaren jarraipena egiteko erraminta informatiko espezifiko bat izatea.

Helburu operatiboa 4.2: Alor honetan erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzaren egokia sustatzen jarraitzea.

GO.4.2.1. Herrien arteko eta instituzioen arteko elkarlan eta koordinazio guneetan parte hartzea (Berdintasuna, Bizkaiko Foru Aldundia, Bizkaiko Lurralde Sarea, EUEDEL eta Emakunde).

O.E. 5: Parte hartzea eta intzidentzia: Emakumeen ahotsa eta mugimendu feminista nabarmenduz.

Helburu operatiboa 5.1: Emakumeen eta mugimendu feministaren parte hartzea eta ekarpenak ahalbidetzen dituen prozesu eta lan metodologiak sustatzea, udalerri mailan egiten diren lanetara batuz.

GO.5.1.1. Parte hartzea eta elkarlana nola ematen den adosteko batzorde sektorialen elkarlan eta parte hartze araudiak aztertzea.

GO.5.1.2. Batzar irekiak burutzea elkarlan prozesuen eta parte hartze guneen inguruko akordioak berrikusteko eta honen inguruko akordioetara iristeko.

O.E. 6: Emakumeen ahalduztze indibidual eta kolektiboa laguntzea perspektiba feministatik.

Helburu operatiboa 6.1: AF.OO.6.1. Aniztasunean genero kontzientzia, autoestimua eta emakumeen autonomia sustatzen dituzten prozesuak sortu eta finkatzea.

AF.6.1.1. Beste Emakumeen Etxe batzuekin sarean lana egitea bultzatzea; aukera ezberdinak ezagutzea, bertan parte hartzen duten emakumeak ezagutzea, sare aukerak ezagutzea.

AF.6.1.2 Ahalduztzera bideratuta dauden programa eta zerbitzuak indartzeko eta ezagutarazteko ekimen berritzaileak burutzea, emakume gazteetan, emakume helduetan, emakume arrazializatueta, emakume migratueta, dibertsitate funtzionala duten emakumeetan eta abar atentzio berezia jarritz.

AF.6.1.3. Ahalduztze eskolaren programazioa bultzatzea, dibertsifikatzea eta haren irismena hedatzea eduki zein ordutegi edo iraupen aldetik, ikuspuntu intersektional batetik. Hau da, emakumeak talde homogeneo bat ez direla kontuan izanda eta arreta berezia jarritz emakumeak arraza, sexu, klase, sexualitate... arrazoiengatik diskriminatuak ez direla bermatzen.

AF.6.1.4. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen ahalduztzea bultzatzeko neurri espezifikoak hartzea: talde egonkorak sortzea, zapalkuntza konkretuak lantzeko saioak antolatzea eta abar.

Helburu operatiboa 6.2: Emakumeen parte hartzea sustatzea aktibitate fisikoan eta kirol jardueretan, sorkuntza intelektualean eta artistikoan, haien lorpen eta sorkuntzak ikusaraziz eta aitortuz eta memoria historikoaren berreskurapena sustatuz.

EF.6.2.1. Ermuko emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko eta ikusarazteko proiektuak burutzea, ikerketa beka baten sorkuntzaren bidez.

EF.6.2.2. Ekintza positibo neurriak martxan jartzea jai eremuetan, produkzio artistikoetan, literarioetan, musikaletan, ikus-entzunezko produkzioetan eta abar emakumeen parte hartzea handiagotzeko, Ermuko eskaintza kulturean eta honen inguruko erabakiak hartzerakoan emakumeen presentzia bermatuz.

EF.6.2.3. Emakumeen kirol jarduera eta hauek kirolean duten presentzia bistaratzen duten ekintzak diseinatzea eta aurrera eramatea, Ermua Kirolak-ek parte hartzen duen programetan eta lehiaketen antolakuntzan genero-ikuspegia kontuan izanik. Adibidez, irizpide ez androzentrikoak izatea kirol lehiaketetan, sari ekonomiko berdinak, ordutegiak eta espazioak (emakumeen proben ikusgarritasuna ahalbidetuz), kartelak eta promoziorako materiala, epaile eta arbitro kopurua, eta abar.

EF.6.2.4. Taldean korrika egitera edo bizikletan ibiltzera joan nahi duten emakumeentzat elkartzeko puntuak erraztea, ikastaroak edo entrenamenduak antolatzea (Mugi edo Hiribili bitartez, adibidez), kirola kanpoan egitea sustatuz.

EF.6.2.5. Estrategia hezkidetzailleak sustatzea kirol eremuan, baita, kirolean emakume eta gizonen parte hartzea errazten duten testuinguruen sorkuntza ere. Eskola Kirolean genero perspektibaren txertaketaren bidez, monitoreen formakuntzaren bidez edo familiekin orientazio pedagogikoaren bidez, besteak beste.

O.E. 7. Emakumeen eta mugimendu feministaren ahalduntze soziopolitikoak laguntzea

Helburu operatiboa 7.1: Emakumeen mugimendu asoziatiboa eta mugimendu feminista indartzen eta gaitzen laguntzea, ikuspegi intersektionalek udaleko politika publikoetan parte hartu dezaten.

AF.7.1.1. Udaleko diru laguntzen oinarrien inguruan hausnartzea eta hobekuntzak proposatzea: helburutzat duen publikoa, puntuazio irizpideak eta abar.

AF.7.1.2. Berdintasun proiektuetarako diru laguntzen deialdietara aurkeztu diren emakumeen elkarteak eta berdintasuna sustatzen duten erakundeei aholkularitza eskaintzea.

AF.7.1.3. Diskriminazio intersektional egoeran dauden emakumeak zuzendutako ahalduntze ekimenak babestea.

AF.7.1.4. Berdintasun Kontseilua sendotzea eta udal-ekintzan txertatzea, emakumeek udal-politiketan parte hartzeko eta eragiteko.

HE. 8. Berdintasuna eraldaketa ekonomiko eta sozialerako beharrezko balore gisa aitortzea.

Helburu operatiboa 8.1: Hezkidetza programen bitartez berdintasuna eta aniztasuna sustatzea.

EK.8.1.1. Berdintasunerako hezkidetza proiektu bat bultzatzea, ikastetxeekin elkarlana garatuz eta hezkuntza komunitatea barneratuz (ikasleak, irakasleak, familiak eta abar) agenda feministak nabarmendutako egunetan koordinazioa egiteko (martxoak 8, maiatzak 17 eta azaroak 25).

[Guía de aprendizajes del programa Nahiko!: resumen, conclusiones y experiencias piloto \(PDF, 1 MB\) Emakunde 2015](#)

[II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato 2019-2023. Edición1ª edición2019](#)

EK.8.1.2. Udalaren eta hezkuntza komunitatearen arteko lan koordinatua osatzea beharrak identifikatzeko, herrian hezkidetza mahai edo foro bat martxan jarritz.

EK.8.1.3. Genero identitatearen dibertsitatearen eta askatasunaren inguruko sensibilizazio kanpainak egiten jarraitzea.

EK.8.1.4. Gazteei zuzendutako programen kontratazio-pleguen bidez, kontratatzen diren langileek hezkidetzari, prebentzioari eta jarrera matxisten identifikazioari buruzko prestakuntza dutela bermatzea.

Helburu operatiboa 8.2: Zaintzen berdintasunezko kultura sustatzea, hauen horniketa birbanatzeko eta gizonak erantzukidetasunetik.

EK.8.2.1. Maskulinitate eredu berriak hezkuntza formalean eta ez formalean lantzeko sensibilizazio eta hausnarketa guneak sortzean eragitea.

EK.8.2.2. Sindikatuekin eta enpresa-sarearekin partaidetza-prozesuak hastea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko konpromisoa sendotuz, alde zuzenetik izandako esperientziak ezagutaraziz eta balioan jarritz.

H.E. 9. Emakumeen autonomia ekonomikoa.

Helburu operatiboa 9.1: Emakumeen laneratzera zuzendutako formakuntza eta lan politika espezifikoak ezartzea.

EK.9.1.1. Orientazio eta aholkularitza ibilbide pertsonal eta integratua duten programak eta zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen enplegarritasun profilerak egokitutako formakuntza programak sortzea eta garatzea.

EK.9.1.2. Adinaren kudeaketaren inguruko programak abiaraztea belaunaldi arteko taldeak sortuz jakintzen transmisiorako (BelaunaldiakLab, Coworking para mujeres +45, etc.).

EK.9.1.3. Komunikazio bideak (web orrialdeak edo beste batzuk) sortzea emakumeen enpleguaren inguruko datuen eta errekurtsoen inguruko informazioa modu periodikoan helarazteko.

EK.9.1.4. Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko kontratazioetarako udaleko laguntza ekonomikoak sustatzea (adingabekoak barneratzen dituen), emakumeen kontziliazio pertsonala eta familiarra errazteko.

EK.9.1.5. Enpleguaren sorkuntza sustatzea, emakume langabeak lan-merkatuan sartuz eta/edo ezkutuko lanetik irteten laguntzea.

Manual de uso: Guía de transversalización de la perspectiva de género en la aplicación del Plan de Empleo 2020-2023.

Helburu operatiboa 9.2: Enpresei eta herriko erakundeei haien kultura, estrategia eta kudeaketa ereduan berdintasuna ezartzen laguntzea, emakumeei autonomia gehiago emateko.

EK.9.2.1. Informazioa eta errekurtsoak eskaintzea legez Berdintasun Plan bat izatera derrigortuta ez dauden enpresek berdintasun eta kontziliazio neurriak ezartzeko.

EK.9.2.2. Beste herri batzuek enpresetan kontziliazioa sustatzeko eta formakuntza truke, beharren identifikazio eta/edo praktika onen inguruko ekimenak abiarazteko egindako ekimenak ikertzea.

[Igualdad en empresas y organizaciones](#)

O.E. 10. Zaintzen ekonomia feminista

Helburu operatiboa 10.1. Kontziliazioari eta zaintzei dagokienez biztanleriaren beharrak identifikatzea eta informazio eta horniketa baliabideak gehitzea.

EK.10.1.1. Perspektiba intersektional batetik Ermuko zaintzen inguruko diagnostikoa egitea, zaintza beharrak, zaintzen horniketaren ezaugarriak, zaintzak burutzen dituzten pertsonen egoera eta abar. Ama bakarreko familietan, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzale ez formaletan eta orokorrean, etxeko lanak eta zaintza lanak burutzen dituzten emakumeengan arreta berezia jarritz.

EK.10.1.2. Zaintzen diagnostikoan lortutako datuen arabera neurriak ezartzea bultzatzea.

EK.10.1.3. Etxeko langileen eta zaintza langileen eskubideen inguruko formakuntza eta aholkularitza ekintzak antolatzea, OITren 189 Hitzarmena onartu dela kontuan izanik.

EK.10.1.4. Emakume zainzaileen elkartze sareak sustatzen jarraitzea.

EK.10.1.5. Bizitza pertsonala, lan bizitza eta familia bizitza bateragarri egitera lagundu dezaketen zerbitzuen inguruko informazioa helaraztea.

[Kontzilia - Conciliación personas trabajadoras](#)

Helburu operatiboa 10.2: Lurralde-diseinuak modu jasangarri batean bizitzaren zaintzarekin erlazionatutako beharrak eta eskaerak kontutan hartzea ahalbidetzea.

EK.10.2.1. Hiri Debekatuaren maparen jarraipena eta honen desagertzea bermatzeko neurriak ezartzea, elkarlanean eta era interseksionalean, emakumeen, adin ezberdinetako pertsonen, agenteen eta herriko talde feministen parte hartzearekin.

[Plan Estratégico de la Actividad Física y del Deporte de Ermua para el periodo 2022-2025](#)

EK.10.2.2. Emakumeen eta gizonen beharrak modu bereiztuan aztertzea eta hiriko antolaketa eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzea.

EK.10.2.3. Genero-ikuspegia duten hirigintza jardunaldiak antolatzea, esperientziak eta jasangarritasun kolektibo eredu berriak eta bizitzaren zaintza jasangarri eredu berriak identifikatzeko helburuarekin.

EK.10.2.4. Hirigintzaren ardura duten edo emakumeen eta gizonen berdintasunean ardura duten langile teknikoei zuzendutako formakuntza eskaintzea, hirigintza feministaren eta Genero-ikuspegia duen hirigintzaren inguruan.

O.E. 11. Ikuspegi interseksionaletik balioak aldatzea indarkeria matxistaren prebentziorako.

Helburu operatiboa 11.1: Sentsibilizazio eta informazio ekimenak garatzea, indarkeria matxista betikotzen duten sinbolo eta egiturak aldatzea, erreparazioaren ikuspegia ezartzea.

IM.11.1.1. Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazio kanpainak, jardunaldiak eta ekintzak egiten jarraitzea, pertsona, indarkeria adierazpen eta eragin aniztasuna ikusaraztea ahalbidetzen duten ekintzen alde eginez.

IM.11.1.2. Erreparazioaren eta mina ez errepikatzearen inguruan gizonekin lan egiten duten erakundeei laguntzea edo/eta haiekin programak sortzea.

O.E. 12. Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako helburuen eta ekintzen integrazioa eta koordinazioa ahalbidetzeko marko estrategikoa sortzea.

Helburu operatiboa 12.1: Udalak indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko konpromezu egonkorra izatea.

IM.12.1.1. Indarkeria Matxistaren Aurkako Udal Plana 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testuategina onartzen duena ezarritakora egokitzen den aztertzea, indarrean sartzeak eremu horretan eragin ditzakeen aldaketak identifikatzeko.

IM.12.1.2. Bi Planen jarraipen, ebaluazio eta koordinazio lanetan elkarlanerako mekanismoak eta interakzio eta lan guneak garatzea.

Objetivo estratégico 13. Emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioan, prebentzioan eta formazioan aurrerapausoak ematen jarraitzea.

Helburu operatiboa 13.1: LGTBIQ+ pertsonen pairatzen duten diskriminazioari aurre egiteko ekimenak burutzea.

IM.13.1.1. LGTBIQ+ pertsonen errealitatearen inguruko herri mailako diagnostiko bat burutzea.

IM.13.1.2. Sexu aniztasunaren inguruko eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideen defentsarako prebentzio eta sentsibilizazio programak antolatzen jarraitzea.

IM.13.1.3. Indarkeria matxistaren eta LGTBIQ+fobiaren prebentziorako aktibitateak abiaraztea herritar guztiei zuzenduta. Egun konkretuetako aktibitateak adibidez: apirilak 26, maiatzak 17 eta abar.

* *Ermuak Indarkeria Matxistaren aurkako Udal Plana du; bertan alor honetako ekintza marko espezifikoa jasotzen da, jarduketa, errekurtso, konpetentzia eta ardurak, egutegia, adierazleak, aurrekontuak eta ebaluazio motak azalduz eta herritarren eta erakunde, antolakunde eta agente parte hartzea sustatuz eta erraztuz. Ermuko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV Plana herrian dauden araudiak, planak eta ekintzak jaso eta koordinatzen dituen markoa izatea espero da, Indarkeria Matxistaren aurkako Udal Planak duen garrantzia alde batera utzi gabe.*

Jarraian, Indarkeria Matxistaren aurkako Ermuko Udal Planean agertzen diren ekintza batzuk IV Berdintasunerako Planarekin lotzen dira:

Indarkeria Matxistaren aurkako Ermuko Udal Plana	IV Berdintasunerako Plana (Helburua erlazionatuta)
Udal protokoloaren esparruan, Ermuan indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen arretan parte hartzen duten udal zerbitzuekin eta erakundeekin adostea identifikatu gabeko datu estatistiko jakin batzuk sistematikoki biltzea, horien mendeko biktimak adingabeekin lotutakoak barne, eta Berdintasunerako Unitatera bidaltzea, aztertu eta ustiatzeko.	GO.HO.1.1. Udalak berdintasunarekiko duen konpromezu politikoa areagotzea eta ikusaraztea.
Elkarteekin eta antolakundeekin/gizarte-eragileekin elkarlanerako eta trukerako gune egonkor bat sortzea, indarkeria matxistaren mota eta egoera desberdinen aurrean prebentzio- eta sentsibilizazio-arloan hartu beharreko neurriak buruzko proposamenak sortzeko, eta gune horretan genero-indarkeriaren biktimak diren emakume eta elkarteak egotea ziurtatzeko.	GO.HO.4.1. Koordinazioa eta elkarlana indartzea berdintasunari zeharlerrokotasunetik heltzeko Ermuko Udaleko Sail, Unitate eta zerbitzu guztietan.
Hezkidetzaren tokiko esparruko eragileekin lankidetzan, ikastetxeetan eta institutuetan garatu beharreko ikasgelan esku hartzeko proiektu bati ekitea, jarduera artistiko edo intelektualeko edozein eremutako emakumeen esperientzia bilduz: margolariak, idazleak, ikertzaileak, zinemagileak, lanbide liberalak ..., aurreko mendeetakoak eta gaur egungoak, beraiek jasandako indarkeria matxistaren lekukotza utzi dutenak, egoera horiei amaiera emateko baliabideak eta urratsak, eta haien susperraldia erresilientziaren eta ahalduentzearen ikuspegitik. Indarkeria matxistaren ondorioz eraildako Ermuko emakumeak buruzko ikerketa bat egitea, haien izenak eta historia azalduz, haien nortasuna berreskuratzeko eta ikusgai egiteko, elkartasuna, oroimena eta kaltearen aitorpena erakutsiz eta arlo horretan memoria kolektibo bat sortzen aurrera eginez.	EF.OO.6.2. Emakumeen parte hartzea sustatzea aktibitate fisikoan eta kirol jardueretan, sorkuntza intelektualean eta artistikoan, haien lorpen eta sorkuntzak ikusaraziz eta aitortuz eta memoria historikoaren berreskurapena sustatuz.
Prestakuntza-modulu bat eskaintzea, udal-sailetako teknikarientzat eta indarkeria matxistaren aurkako I. Udal-protokoloa sinatu duten udalaz	EK.HO. 8.1. Hezkidetzaren programen bitartez berdintasuna eta aniztasuna sustatzea.

gaindiko erakundeetako langileentzat, desgaitasuna duten neskekin eta emakumeekin esku hartzeko. Modulu horretan, arreta egokiena bermatzeko zerbitzu bakoitzean beharrezkoak diren neurriak ezarri eta sartuko dira. "Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskak. Esku hartzeko jarraibideak" gida, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak 2019ko ekainean argitaratua, erreferentziazko material ona izan daiteke ikastaroan erabiltzeko eta esku hartzen duten langileen artean banatzeko. Inplikaturako udal sail/zerbitzuekin (Gazteria, Hezkuntza ...) koordinatuta eta haiekin lankidetzan, hezkidetzaren arloan lan proposamen egonkor berri bat diseinatu eta planteatzea, indarkeria matxistaren aurkako prebentzioan eta sentsibilizazioan bereziki garrantzitsua den gune gisa, Ermua benetako "hiri hezitzailea" edo, are hobeto, hezkidetzaila izan dadin.	
Eusko Jaurlaritzaren GIZONDUZ prestakuntza-programak eskaintzen dituen moduluak hedatzeko kanpaina bat egitea. Ermuko erakunde publiko eta pribatuei, edonolako elkarteei eta, oro har, herritarrei zuzenduta dago.	EK.HO. 8.2. Zaintzen berdintasunezko kultura sustatzea, hauen horniketa birbanatzeko eta gizonak erantzukidetasunetik zaintzetan sartzeko.
Indarkeria matxistaren aurka konprometitutako erakundeen udal-ziurtagiriak edo "labela" ezartzea, prestakuntza programan parte hartzen duten erakunde eta elkarreentzat, konpromiso-maila desberdinak ezarriz, moduluak egiten dituzten gizonen ehunekoaren arabera. Koherentzia sinbolikoari eusteko, zehazten den eta plan honetako beste jarduera batzuekin zerikusia duen puntu lila antzeko irudiarekin identifikatuko dira.	EK.HO. 9.2. Enpresei eta herriko erakundeei haien kultura, estrategia eta kudeaketa eremuan berdintasuna ezartzen laguntzea, emakumeei autonomia gehiago emateko.
Prestakuntza- eta partaidetza-jarduera bat antolatzea, Ermuko "emakumeentzat debekatutako hiriaren mapa" berri bat egiteko, segurtasunik ezaren guneak eta puntuak (indarkeria matxista) zein horiek erabiltzeko, eskuratzeko eta igartzeko zailtasunak identifikatzeko, ikuspegi intersektzionaletik begiratuta.	EK.HO. 10.2. Lurralde-diseinuak modu jasangarri batean bizitzaren zaintzarekin erlazionatutako beharrak eta eskaerak kontutan hartzea ahalbidetzea.

9. ERMUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN KUDEAKETA-ETA JARRAIPEN-EGITURAK

9.1. Plana kudeatzeko egiturak

Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren kudeaketa-sistemak definitzen eta artikulatzen ditu deskribatutako ekintza guztiak Udalean modu eraginkor eta koordinatuan inplementatzea ahalbidetuko duten elementuak.

Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana abian jartzeko, garatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko aurreikusitako lan-egiturak honako hauek dira:

Berdintasunerako Alorra

Ermuko Udalak Berdintasunerako Alorra bat dauka, Aukera Berdintasuneko Teknikari plaza batekin, karrerako funtzionario batek betetzen duena, eta lanaldi osoa berdintasuneko tokiko politikak bultzatzen eta, zehazki, IV. Plana garatzen ematen duena, honako eginkizun hauekin:

Eginkizunak:

- Plana behar bezala ezartzeko IV. Planaren testuinguruan egiten diren ekintzak bultzatzea eta koordinatzea.
- Plan, ekintza eta helburu zehatzak garatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aholkularitza ematea mendeko beste arlo eta organo batzuei.
- Planaren garapenean inplikaturako egitura eta eragile guztien koordinazioa
- Helburuen eta denboren betetze-mailaren jarraipena.
- Neurri zuzentzaileen proposamena eta ezarpenaren balorazioa.
- Planaren komunikazioa.
- Entitate, elkarte eta herritarrekin parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko bideak ezartzea eta mantentzea.
- Koordinazio-guneak dinamizatzea eta parte hartzea.
- Lortutako emaitzak mantentzeko eta Planaren tresnak kudeatzeko beharrezkoak diren erantzukizunak zehaztea.

IV. Planaren azken ebaluazioa egitea. Era berean, Unitate honek arlo horretan trebatutako eta espezializatutako teknikariak ditu:

- Enplegu eta prestakuntzako teknikari bat, dedikazio osoarekin.
- Gizarte-langile espezializatu bat, arreta-kasuetan erreferentea, dedikazio partzialarekin.
- Administrazio laguntzaile bat, Unitateko eta Emakumearen Etxeko programetan lanaldi osoz arituko dena.

Arlo teknikoko arduradunak/Alor guztiak udaleko zuzendaritzak

IV. Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik garatuko da, eta, beraz, arlo bakoitzeko arduradunek/zuzendaritzek beren lan-eremuan egiten diren ekintzak koordinatzeko eta haien jarraipena osatzeko eginkizuna izango dute.

Urtean bi lan-bilera proposatzen dira, berdintasun-teknikariaren parte-hartzearekin, urteko plan operatibo bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa osatzeko.

Eginkizunak:

- Urteko plan operatiboa egitea, urtearen hasieran.
- Jarduerak gauzatzeko eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide materialak identifikatzea.
- Planean definitutako ekintzak, zeharkakotasunetik.
- Planaren ekintzen eta helburuen betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa.
- Neurri zuzentzaileen proposamena, hala badagokio.
- Teknikariei zuzendutako berariazko prestakuntza-saioetan parte hartzea.

Koordinazio-egitura tekniko-politiko (Talde Misto)

Zeharkako ikuspegi beretik, erantzukizun politikoa duten pertsonen IV. Plana ezartzeko ardura duten teknikariekin bultzatu, gainbegiratu eta koordinatuko dira, eta egitura mistoan integratuko dira.

Talde misto horrek urtean gutxienez bi bilera egingo ditu, lehenengoa urteko Plan Operatiboan lan egiteko eta bigarrena ebaluazioan lan egiteko.

Eginkizunak:

- Planean definitutako ekintzak gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak ematea, zeharkakotasunetik abiatuta.
- Planaren helburuen betetze-mailaren jarraipena eta kontrol politikoa.
- Neurri zuzentzaileak proposatzea eta horien ezarpena baloratzea.
- Parte hartze Organoetatik jasotzen diren proposamenen balorazioa eta erabakiak hartzea (Berdintasun Kontseilua).
- Erantzukizunak zehaztea eta lortutako helburuak mantentzeko beharrezkoak diren tresnak kudeatzea.
- Planaren komunikazioa.
- Politikariei zuzendutako berariazko prestakuntza-saioetan parte hartzea.

Berdintasunerako Udal Kontseilua

Ermuko Berdintasunerako Udal Kontseilua udalerriko bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialeko ekintzen organo aholku-emaile, informatzaile, sustatzaile eta behatzailea da. Horretarako, kontuan hartuko dira IV. Planeko ekintzen garapenari buruzko proposamenak, bai eta hainbat eremutako beste partaidetza-organo batzuenak ere (Hiria, Kultura), eta arrazoitutako erantzuna emango zaie arrazoiren batengatik baztertu edo aldatu behar diren proposamen guztiei.

Eginkizunak:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan neurriak sustatzea eta iradokizunak egitea Udalari.
- IV. Planaren jarraipena egitea, baita berdintasun-printzipioaren betetze-mailaren jarraipena ere.
- Programa eta jarduera zehatzen onarpena sustatzea.
- Udalarekin elkarlanean aritzea ekintza puntualak antolatzeko.
- Berdintasunaren alde lan egiten duten eta lan egiteko prest dauden elkartearen arteko lankidetzak bultzatzea.
- Iritzia, azterketarako gaitasuna eta hausnarketarako espazioa sortzea.

9.2. Kudeaketa-sistemaren funtsezko elementuak

Kudeaketa-sistemaren funtsezko elementuak honako hauek dira: urteko programazioak, gauzatze-prozesua eta jarraipen- eta ebaluazio-sistema, jarraian zehazten direnak.

Urteko programazioak

Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana 2023tik 2027ra egongo da indarrean, eta urteko plan operatiboen bidez ezarriko da. Urte hasieran, udal-arlo/-unitate bakoitzak abian jarriko dituen ekintzak identifikatu eta planifikatuko ditu, bai eta ekintza horiek gauzatzeko aurrekontua ere.

Ekintzak hautatzeko, Planean hasieran aurreikusitako denboralizazioa hartuko da kontuan, baina ekintzaren bat aurreratzeko edo atzeratzeko beharrezko malgutasunarekin, esku-hartzearen testuinguruak hala gomendatzen badu.

Plangintza-sistema hori urtero errepikatuko da, eta ondoriozko informazioak Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren jarraipen-prozesua elikatuko du.

Gauzatze- eta jarraipen-prozesua

Plana gauzatzen den bitartean, eta aldez aurretik zuzendaritza arduradun bakoitzaren aholkularitza- eta trebakuntza-beharrak ezagututa, Berdintasunerako Alorrak urteko programazioan jasotako ekintzak inplementatzen lagunduko eta aholkatuko du, jasotako eskarien eta ezarritako lehentasunen arabera. Arlo bakoitzak ekintzen jarraipena eta betetze-mailaren ebaluazioa osatuko du urtearen amaieran, helburu horrekin diseinatu den lan-tresnaren bidez. Gainera, horrela lortutako datuak osatu ahal izango dira, hala badagokio, behaketaren eta baterako lan-saioen bidez lortutako informazio

kualitatiboagoren batekin. Hori guztia kontuan hartuta, hurrengo urteari dagokion urteko plana egingo da.

Ebaluazio-sistema

Bildutako datu guztiekin, 2027an azken ebaluazio bat egingo da, aldez aurretik ezarritako helburuak lortzeko Planaren egokitasuna aztertzeko. Planean aurreikusitako ebaluazio-adierazleek (egitea + emaitza + inpaktua) aukera emango dute plangintzaren betetze-maila neurtzeko eta oro har baloratzeko, erabakiak hartzeko aholkua emanez. Honek Ermuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzen jarraitzeko ekintza plan berriak planifikatzeko balioko du.

Beraz, IV. Planak hiru ebaluazio-maila izango ditu:

- **Betetze-mailaren ebaluazioa:** Planean ezarritako ekintzetatik abiatuta egindako ekintzen kopurua aztertzea izango da helburua. Ebaluazio jarraitua da, Planaren indarraldian luzatuko dena eta azken txosten batean ateratako informazioa jasoko duena.
- **Emaitzen ebaluazioa:** planean ezarritako helburu operatiboen betetze-maila baloratzeko; horretarako, aldez aurretik ezarri dira adierazleak. Ebaluazio hori urtean behin egingo da.
- **Eraginaren ebaluazioa:** Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren emaitzetan oinarrituko da. Espero diren emaitzekin Planaren eragina neurtuko da. Helburua eragina duen taldeen egoera aldatzea izango da. Planaren indarraldia amaitzean osatuko da ebaluazio hori.

9.3. Aurrekontua

Finantzaketari eta bideratu beharreko baliabideei dagokienez, gogoratu behar da, 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duenaren arabera, ekitaldi bakoitzean zehaztu behar direla neurriak/planak garatzeko esleitutako aurrekontuak (15.2 artikulua): *“Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Foru Administrazioak eta Toki Administrazioak urtero izendatuko eta zehaztuko dituzte beren aurrekontuetan lege honetan aurreikusitako eginkizunak betetzeko eta neurriak gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak”*.

Berdintasunerako Alorrak urteko aurrekontua izango du, Planaren ekintzak gauzatu ahal izateko. Ermuko Udalak urtero bideratuko ditu Berdintasunerako Alorrara edo Planaren ekintzak garatzeko ardura duten beste sail batzuetara, horretarako behar beste baliabide, gainerako unitateek ere aurreikusi beharko baitute Planaren berezko ekintzak garatu ahal izateko aurrekontua.

2023. urterako, Berdintasun Unitateak 135.000 euroko aurrekontua izango du Planaren ekintzak gauzatu ahal izateko.

Ildo horretan, Ermuko Udalak emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta programak ezartzeko erabiliko duen tokiko aurrekontua aurtengo aurrekontu osoaren % 1,40 izango da. Programa horiek Berdintasunerako Alorrak sustatzen ditu lehentasunez, baina baita beste udal sail batzuek ere.